

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA
Programa: 942102 TEFFF

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
Programa: 942100 FOFEL

PROGRAMAREN MEMORIA	MEMORIA DEL PROGRAMA
---------------------	----------------------

I. MEMORIA

Programa honetan jasotzen dira Arabako toki erakundeek beren finantzaketarako jasotzen dituzten ekarpen kuantitatiboki garrantzitsuenak.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

1.- Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.

Helburua: Arabako toki erakundeak finantzatzen laguntzea: kuadrillak, udalak eta kontzejuak.

1.1 Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.

Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauak 16.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, "ekitaldia amaitutakoan, funts horren aurrekontuko zuzkiduraren likidazioa egingo da, arau horren 5. artikuluan ezarritako ereduaren arabera, eta bertan jasotako kontzeptuen benetako zenbatekoarekin. Toki erakundeen alde edo aurka egon daitezkeen aldeak hurrengo ekitaldian jaso behar dituzten esleipenen bidez erregularizatuko dira".

Arabako Lurralde Historikoko 2025erako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 18/2024 Foru Arauaren 21. artikuluan 2025eko ekitaldirako Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean 289.983.110,00 euroko hasierako zuzkidura egitea ezartzen da.

Bestalde, funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzen duen abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauak hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, 8. artikuluan jasotako arauen arabera kalkulatu den

I. MEMORIA

Este programa recoge las aportaciones cuantitativamente más importantes que perciben las entidades locales alavesas para su financiación.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1.- Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales.

Objetivo: Cooperación en la financiación de las entidades locales alavesas: cuadrillas, ayuntamientos y concejos.

1.1 Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.

De conformidad con lo establecido en el artículo 16.1 de la Norma Foral 19/1997, de 30 de junio, reguladora del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava, “finalizado el ejercicio se practicará la liquidación de la dotación presupuestaria del citado Fondo de acuerdo con el modelo fijado en el artículo 5 de dicha Norma por el importe real de los diferentes conceptos recogidos en el mismo. Las diferencias que puedan resultar a favor o en contra de las entidades locales se regularizarán con las asignaciones que les correspondan percibir en el ejercicio siguiente”.

La Norma Foral 18/2024, de 17 de diciembre, de ejecución presupuestaria del Territorio Histórico de Álava para el año 2025, en su artículo 21, establece una dotación inicial del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava para el ejercicio 2025 de 289.983.110,00 euros.

Asimismo, según la Norma Foral 33/2021, de 21 de diciembre, que modifica la Norma Foral 19/1997, de 30 de junio, reguladora del fondo, según su disposición adicional undécima, al importe del tramo complementario, calculado

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 942102 TEFFF

tarte osagarriaren zenbatekoari udal eremuan euskara sustatzeko eta planifikatzeko funtsaren zenbatekoa erantsiko zaio, urriaren 7ko 4/2021 Legean ezarritakoaren arabera (Baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko Legea). Euskara sustatzeko funts horren zenbatekoa 144.360,00 euro izango da 2025eko ekitaldirako. Kopuru hori jada sartuta dago lehen aipatutako foru funtsaren zuzkiduran.

19/1997 Foru Arau horren 7. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsari 5.168.000,00 euroko beste osagarri bat gehituko zaio.

Abenduaren 27ko 38/2022 Legeak energiaren aldi baterako karga eta kreditu erakundearen eta kredituko finantza establezimenduen aldi baterako karga ezartzea onetsi zuen. Karga horiek zergaz kanpoko ondare prestaziotzat hartzen dira, eta, egun, ez daude Ekonomia Itunetik datozen diru sarrera banatu beharrekoen artean, nahiz eta Euskadik horietan parte hartzea erabaki duen Itunaren Batzorde Mistoak.

Horregatik, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoak bi karga horietan parte hartzearen ondorioz lortutako finantzaketak hiru erakunde mailen eskumenak finantzatzen lagundu behar duela, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2023ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen zenbateko horiek Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean banatzea, bakoitzaren koefiziente bertikal eta horizontalaren arabera, eta toki erakundeek aldi baterako bi karga horietan izango duten partaidetza lurralde historiko bakoitzaren foru organoetan zehaztea. Kontzeptu hori 2.185.767,00 eurotan kuantifikatu da 2025erako, eta, horrela, foru funtsaren hasierako zuzkidura zenbateko horretan handitu da.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 942100 FOFEL

según las reglas contenidas en el artículo 8, le será añadido el importe del fondo de fomento de euskera y planificación en el ámbito municipal, según lo establecido en la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026. Para el ejercicio 2025 el importe de este fondo de fomento de euskera se fija en la cantidad de 144.360,00 euros. Este importe ya se encuentra incluido en la dotación del fondo foral citado anteriormente.

De acuerdo con lo establecido en el apartado 2 del artículo 7 de la citada Norma Foral 19/1997, se dota un complemento adicional al Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de 5.168.000,00 euros.

La Ley 38/2022, de 27 de diciembre, aprobó el establecimiento de un gravamen temporal energético y de un gravamen temporal de entidades de crédito y establecimientos financieros de crédito. Los citados gravámenes se consideran prestaciones patrimoniales no tributarias de naturaleza extrafiscal y, en la actualidad no se encuentran dentro de los ingresos sujetos a reparto derivados del concierto económico, aunque se ha acordado la participación de Euskadi en los mismos en la Comisión Mixta del Concierto.

Por ello, considerando que la financiación obtenida en virtud de la participación del País Vasco en ambos gravámenes debe contribuir a financiar las competencias de los tres niveles institucionales, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en su sesión celebrada el 15 de febrero de 2023 acordó que estas cantidades, se distribuyeran entre el Gobierno Vasco y las diputaciones forales de acuerdo con sus coeficientes verticales y horizontales respectivos, y que la participación de las entidades locales en ambos gravámenes temporales se determinara en los órganos forales de cada Territorio Histórico. Dicho concepto se ha cuantificado para 2025 en 2.185.767,00 euros, incrementándose de este modo la dotación inicial del fondo foral en dicho importe.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 942102 TEFEE

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 2025eko ekitaldiari zegokion Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funttsaren behin betiko zenbatekoa jakinarazi zuen. Horren likidazioa, guztira, 309.996.103,64 euro da, data horretan indarrean zegoen araudiaren arabera.

Beraz, datu berri horiek aplikatu dira, bai Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandakoak, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funttsari 2025eko ekitaldiaren likidazioan guztirakoan zer zati dagokion zehazteko, bai kuadrillek emandakoak, 19/1997 Foru Arauaren 8. artikulua b) apartatuan aipatzen diren zerbitzuak emateko benetan sortu diren gastuei buruz.

Era berean, abenduaren 29ko 61/2017 Foru Dekretuari jarraituz, kontratatu diren zerbitzuetak langile gastuak eguneratu dira, sektore publikoko langileen soldata baldintzei dagokienez.

Horrekin guztiarekin, Arabako toki erakundeek 2025eko likidazioko azken partaidetzak kalkulatu dira, eta honako banakapen honetan, udal, kuadrilla eta kontzejuentzako zein diren adierazten da:

A) Arabako toki erakundeei Arabako Foru Aldundiak eskualdatu dizkien zerbitzuengatik dagokien partaidetza:

Vitoria-Gasteizko Udalari, eskualdatu zaizkion Gizarte Ongizateko zerbitzuengatik, 3.404.953,79 euro. Kopuru hori oso-osorik ordaindu zen 2025eko ekitaldian.

B) Kuadrillen partaidetza finkoa eta 19/1997 Foru Arauak 8. artikulua b) apartatuan xedatzen duena aplikatzaren ondoriozko partaidetza.

B-1) Kuadrilla bakoitzarentzako partaidetza finkoa, batzordeko kideek administratzaile eta funtzionamendurako azpiegitura dela eta eragindako gastuengatik.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 942100 FOFEL

Por parte de la Dirección de Finanzas y Presupuestos se comunicó el importe definitivo del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales correspondiente al año 2025, cuya liquidación alcanza la cifra de 309.996.103,64 euros, según la normativa vigente a esa fecha.

Por tanto, se ha procedido a aplicar los nuevos datos aportados, tanto por la Dirección de Finanzas y Presupuestos referidos a la cuantía total que representa el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales para su liquidación en el ejercicio 2025, como por las cuadrillas sobre los gastos reales efectivamente realizados en la prestación de los servicios contemplados en el apartado b) del artículo 8 de la Norma Foral 19/1997.

Así mismo se han actualizado los gastos de personal de los servicios contratados según el Decreto Foral 61/2017, de 29 de diciembre, en lo que respecta a las condiciones salariales de los empleados del sector público.

Con todo ello, se obtienen las participaciones finales en la liquidación 2025 de las distintas entidades locales de Álava, las cuales se reflejan para los ayuntamientos, cuadrillas y concejos según el siguiente desglose:

A) Participación por la prestación de servicios tras pasados desde la Diputación Foral de Álava a las entidades locales alavesas:

Al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, por los servicios de Bienestar Social transferidos, 3.404.953,79 euros. La citada cuantía fue abonada en su totalidad durante el ejercicio 2025.

B) Participación fija de las cuadrillas y participación derivada de la aplicación del apartado b) del artículo 8 de la Norma Foral 19/1997.

B-1) Participación fija a cada una de las cuadrillas, en atención a los gastos de infraestructura administrativa y funcionamiento originados por los miembros de su Junta de Cuadrilla.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 942102 TEFFF

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 942100 FOFEL

Kuadrillei kontzeptu horrengatik dagokien partaidetza 67.613,86 euro da, eta, guztira, 405.683,16 euro da hori, banatutakoa adinako zenbatekoa, alegia.

B-2) Kuadrillei zerbitzu jakin batzuk emateagatik Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean dagokien partaidetza, 19/1997 Foru Arauaren 8. artikuluko b) apartatuan ezarritakoaren arabera.

Apartatu horretan, zerbitzuen moduluak eguneratu dira, legeria aplikagarrian 2025eko ekitaldirako baimendutako soldata igoerak aplikatzearen ondoriozko behin betiko zenbatekoarekin.

Kontzeptu horrengatik, benetako partaidetza 1.976.932,91 euro da.

C) Toki erakundeek oinarritzko tartean duten partaidetza 82.097.326,92 eurotan ezarri zen. Honela banatu zen partaidetza:

2.253.294,47 euro	Kuadrillak Cuadrillas
73.637.674,47 euro	Udalak Ayuntamientos
6.206.357,98 euro	Kontzejuak Concejos

D) Udalei tarte osagarrian dagokien partaidetza 222.111.206,86 euro da.

1.2 Konpentsazio dirulaguntza, 60.101,21 euro baino gutxiago jasotzen dituzten udalentzat.

Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Batzordeak 1998ko irailaren 9ko bilkuran erabakitakoaren arabera, 2025eko ekitaldian Toki

La participación de las cuadrillas por este concepto es de 67.613,86 euros alcanzando un total de 405.683,16 euros, cuantía idéntica a la ya repartida.

B-2) Participación de las cuadrillas en el Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales como consecuencia de la prestación de determinados servicios, a tenor de lo establecido en el artículo 8, apartado b), de la Norma Foral 19/1997.

En este apartado se ha procedido a actualizar los módulos de los diferentes servicios con el importe definitivo resultante de la aplicación de los incrementos salariales autorizados para el ejercicio 2025 en la legislación aplicable.

Por este concepto la participación real asciende 1.976.932,91 euros.

C) La participación de las diferentes entidades locales en el tramo básico se fijó en 82.097.326,92 euros, que se distribuyeron:

D) La participación que les corresponde a los ayuntamientos en el tramo complementario es de 222.111.206,86 euros.

1.2 Subvención compensatoria para los ayuntamientos con percepción de Fondos inferiores a 60.101,21 euros.

En base a lo convenido en el seno del Consejo Territorial de Administración Local y Finanzas en su sesión de 9 de septiembre de 1998, se reserva

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 942102 TEFFF

Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean 60.101,21 eurotik beherako partaidetza eduki duten udalei egin beharreko konpentsazioari aurre egin ahal izateko partida bat erreserbatu zen, horrela gutxienez kopuru hori jaso zezaten. Behin udalei banatu beharreko funtsak banatuta, denek jaso dute aipatutako zenbatekoa baino handiagoa; horrenbestez, ez da beharrezkoa izan partida honen bidez finantzaketa osagarri jotzea.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 942100 FOFEL

una partida para poder hacer frente a la compensación a realizar a aquellos ayuntamientos cuya participación en el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de 2025 fuese inferior a 60.101,21 euros, de forma que percibiesen al menos esa cantidad. Una vez realizada la distribución de fondos a los ayuntamientos, todos ellos sobrepasaron la citada cantidad, por lo que no ha sido necesario recurrir a la financiación complementaria a través de esta partida.